 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 1

UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURA

EGUNA: 2025 - 11 - 26

ORDUA: 19:00

IZAERA: OHIKOA

LEHENDAKARIA:

REGINA SORARRAIN LASA andrea.


ZINEGOTZIAK:

- **EDURNE ARRAYET GARMENDIA** andrea.
- **ASIER EZEIZA IRAZUSTABARRENA** jauna.
- **AMAIA JIMENEZ ARANDIA** andrea.
- **ANDREA LARRAÑAGA CEBALLOS** andrea.
- **MARIA JESUS GAZTAÑAGA OTERMIN** andrea.
- **MAIALEN LANDART HERRERO** andrea.
- **MARIA PILAR PALOMARES PEREZ** andrea.

IDAZKARIA:

- **JON ZALDUENDO TELLERIA** jauna.

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 2

Alegian, udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, bi mila eta hogeita bosteko azaroaren hogeita seian, hemeretzi ordu direla, Udalaren Batzar Osoa biltzen da ohizko saioan, goian aipatzen diren zinegotziak partaide direla, Regina Sorarrain Lasa andrea alkatearen lehendakaritzapean.

Bertan aurkitzen da Jon Zalduendo Telleria, Udalaren Idazkaria, eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

Dokumentuan erabiltzen diren akronimoak:
EH BILDU: Euskal Herria Bildu Udal talde Politikoa.
AA: Aurrera Alegia Udal Talde Politikoa.

AZTERGAIK

I.- UDAL JADUERAREN BERRI EMATEA.

I.- Alkatetzaren erabakien berri ematea.

II.- ERABAKIAK

I.- Aurreko aktak onartzea:

- 2025/10/22koa.

II.- Ordenantza Fiskalen errekurtsuari erantzuna.

III.- Larraitz Ekialdea Irisgarritasuna Hobetze eta Hiri Birsortze proiektuaren exekuzioaren obra amaierako ziurtagiria onartzeko proposamena.

III.- ERAKUNDEAREN ADIERAZPENAK, MOZIO, ERREGU ETA GALDERAK.

-Erakundearen adierazpenak:

1. Euskararen Nazioarteko Eguna. Adierazpen Instituzionala.
2. Azaroak 25eko Adierazpena emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna.


Alegia, 2025ko azaroaren 21

Alkateak

Alkatearen agindua betetzeko, honen bitartez, Udal Batzarraren Osoko bilkura egiteko deia luzatzen dizut, lehenengo deialdian goian esaten den toki, egun, ordu eta aztergai zerrendarekin.

Udal Idazkariak

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 3

I.- UDAL JARDUERAREN BERRI EMATEA

I.I.- Alkatetzaren erabakien berri ematea.

Iraganeko 2025ko uztailaren 9eko Osoko Bilkura geroztik, alkatetzak hartutako erabakien zerrenda igorri da deialdiarekin batera, eta honenbestez berri ematen zaio Batzarrari, indarrean dagoen azaroaren 28an onartutako 2568/1986 Errege Dekretuak arautzen dituen Toki Erakundeetarako Eraketa, Jarduera eta Legebideko Araudiaren 42.atalean adierazten den ondorioetarako.

II.- ERABAKIAK

II.I.- AURREKO AKTAK ONARTZEA.

2025ko urriaren 22eko bilkurako akta.

Bilkurako deialdiarekin batean, aktaren zirriborroa igorri zaie Zinegotziei.


Alkate-Lehendakariak, aktaren edukiari buruz norbaitek oharrik egin nahi duen galdetzen du; onartzea proposatuz.

Ez da oharpen eta aldaketa zehatzik egiteko eskatu, edo proposamenik egiten.

Aldaketarik inork ez du eskatzen, eta ondorioz, indarrean dagoen azaroaren 28an onartutako 2568/1986 Errege Dekretuak arautzen dituen Toki Erakundeetako Eraketa, Jarduera eta Legebideko Araudiaren 91.atalean araututakoaren arabera, **ontzat hartua jotzen da.**

II.II.- ORDENANTZA FISKALEN ERREKURTSOARI ERANTZUNA. ERABAKI PROPOSAMENA.

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 4

ORDENANTZA FISKAL ERREKLAMAZIOA

Ikusita, Osoko Bilkurak 2025eko urriaren 22an hartutako erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaiela 2026ko zerga-ordenantzen aldaketei eta testu bateginari.

Ikusita, hasierako erabakia 2025eko urriaren 28an jarri zela jendaurrean, hogeita hamar egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (206 zk.) eta Udalaren webgunean argitaratuta. Ikusita, jendurreko epean, zehazki 2025eko urriaren 29an (sarrera-erregistroa: 2025/915), ANGEL JOSÉ CERVANTES MARTIN jaunak erreklamazio-idazkia aurkeztu zuela Udal honetan.

Kontuan hartu da, erreklamazioaren edukia ikusita, udal Idazkari-Kontuhartzaileak, emandako txostena. Txosten horretan proposatzen du erreklamazioa izapidetzeko ez onartzea, erreklamatzailerak legitimazio aktiborik ez duelako, eta, beraz, izapidetzen jarraitzea, 2026ko zerga-ordenantzen aldaketak eta Testu Bateratua onartzeko espedientea.

AKORDIOA

Lehenengoa.- Izapidetzeko ez onartzea ANGEL JOSÉ CERVANTES MARTIN jaunak 2025eko urriaren 29an aurkeztutako erreklamazioa (sarrera-erregistroa: 2025/915), legitimazio aktiborik ez duelako, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

RECLAMACIÓN ORDENANZAS FISCALES


Visto que, por acuerdo del Pleno de fecha 22 de octubre de 2025, se aprobó inicialmente las modificaciones y el Texto Refundido de las Ordenanzas Fiscales de 2026.

Visto que, con fecha 28 de octubre de 2025, el acuerdo inicial fue sometido a exposición pública por plazo de treinta días, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 206 y en la página web del ayuntamiento. Visto que durante el plazo de exposición pública, concretamente, con fecha 29 de octubre de 2025 (registro de entrada nº 2025/915), D. ANGEL JOSÉ CERVANTES MARTIN presentó escrito de reclamaciones en este Ayuntamiento.

Teniendo en cuenta, a la vista del contenido de la reclamación, el informe emitido por el Secretario-Interventor, en el que propone no admitir a trámite la misma, por carecer el reclamante de legitimación activa y, por tanto, continuar con la tramitación del expediente de aprobación de las modificaciones y el Texto Refundido de las ordenanzas fiscales de 2026.

ACUERDO

Primero.- Inadmitir a trámite la reclamación presentada por D. ANGEL JOSÉ CERVANTES MARTIN con fecha 29 de octubre de 2025 registro de entrada nº 2025/915), por carecer de legitimación activa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 5

Bigarrena.- Hasieran hartutako erabakiaren testuari eustea erabakitzea; eta, 2026ko Zerga-Ordenantzen aldaketen eta Testu Bateginaren onarpenaren espedientearekin jarraitzea.

Segundo.- Acordar mantener el texto del acuerdo adoptado inicialmente y continuar con la tramitación del expediente de aprobación de las modificaciones y el Texto Refundido de las Ordenanzas Fiscales de 2026.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo al interesado.

II.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.


Bozketa eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko hiru boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zortzi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zortzi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengoa osatzen dutela,

ERABAKIA: Izapidetzeko ez onartzea ANGEL JOSÉ CERVANTES MARTIN jaunak 2025eko urriaren 29an aurkeztutako erreklamazioa (sarrera-erregistroa: 2025/915), legitimazio aktiborik ez duelako, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta ondorioz, hasieran hartutako erabakiaren testuari eustea erabakitzea; eta, 2026ko Zerga-Ordenantzen aldaketen eta Testu Bateginaren onarpenaren espedientearekin jarraituz.

 <p>Alegiako Udala Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 6

II.III.- LARRAITZ EKIALDEA IRISGARRITASUNA HOBETZE ETA HIRI BIRSORTZE PROIEKTUAREN EXEKUZIOA. OBRA AMAIERAKO ZIURTAGIRIA. ONARTZEKO PROPOSAMENA.

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

(...)

Horregatik guztiagatik, UDALBATZARRARI honako akordio hau hartzea proposatzen zaio:

Lehenengoa.- Onartzea “Larraitz Ekialdea – irisgarritasuna hobetzeko eta hiri birsorkuntzarako proiektua”ren obra amaierako ziurtagiria, zuzendaritza fakultatiboak emandakoa, baita amaierako planoak, neurketa-orriak eta gainerako dokumentazio tekniko osagarria ere.

Bigarrena.- Onartzea obra amaierako likidazioa, honako zenbateko global honekin:


ESLEITUA	PC		BEZ	DENA
	1.718.472,62 €	21%	360.879,25 €	2.079.351,88 €

LIKIDAZIOA	PC		BEZ	DENA
	1.895.454,41 €	21%	398.045,43 €	2.293.499,84 €

UDALA	1.643.748,55 €	21%	345.187,20 €	1.988.935,75 €
GUSA	251.705,86 €	21%	52.858,23 €	304.564,09 €

Hirugarrena.- Kontuan hartzea espedientean obra-harrera akta jasota dagoela, eta bertan ezarritakoaren arabera:

- Obrak erabilera publikorako baldintza egokietan daudela.
- Kontratastak zuzenketa eta erremate batzuk egin beharko dituela, epe jakin baten barruan, zuzendaritza fakultatiboaren gainbegiradapean.

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 7

- Berme- eta erantzukizun-epaek akta horren sinadura-datatik aurrera hasiko direla kontatzen, kontratu-pleguan xedatutakoaren arabera.

Udaleko zerbitzu teknikoek eta zuzendaritza fakultatiboak zuzenketa horien betearazpena egiaztatuko dute, behar diren txosten eta akta osagarrien bidez.

Laugarrena.- Obraren exekuzio materiala amaitutzat ematea, eta hemendik aurrera kontratuaren jarraipena berme-aldiko obligazioetara mugatzea; berme-aldia amaitzen denean eta gorabeherarik ez badago, kontratua behin betiko amaitutzat jotzeko dagokion erabakia hartuko da eta, hala badagokio, bermeak itzuliko dira.

Bostgarrena.- Erabaki honen berri ematea:

- SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresari,
- Obra-zuzendaritzari eta udal zerbitzu teknikoari,
- Gipuzkoako Urak, S.A.ri, eta espedientean agertzen diren gainerako interesdunei, behar diren ondorioetara.

II.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.


Bozketa eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko hiru boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zortzi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zortzi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengoa osatzen dutela,

ERABAKIA: Onartzea “Larraitz Ekialdea – irisgarritasuna hobetzeko eta hiri birsorkuntzarako proiektua”ren obra amaierako ziurtagiria, zuzendaritza fakultatiboak emandakoa, baita amaierako planoak, neurketa-orriak eta gainerako dokumentazio tekniko osagarria ere.

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 8

III.- ERAKUNDEAREN ADIERAZPENAK, MOZIO, ERREGU ETA GALDERAK.

III.I.- ERAKUNDEAREN ADIERAZPENAK:

I.- AZAROAK 25eko ADIERAZPENA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Indarkeria Matxista Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, gogora ekarri nahi dugu Indarkeria matxistak beldurrezko eta lotsazko ingurunea sortzen duela, indarkeria jasaten dutenak bakartzeko eta isilarazteko joera du, eta biktimgileen zigorgabetasun-sentsazioa areagotzen du. Izan ere, sarerik ez izateagatik eta komunitatean sustraituta ez egoteagatik, egoera horiek areagotu egiten dira isolatuago egon daitezkeen emakumeen artean, besteak beste, adineko emakumeak, landa-ingurune sakabanatuetan daudenak, desgaitasuna duten emakumeak, emakume atzeritarrak eta bestelako baldintza bereizleak dituztenak.

KOMUNITATEAK beste pertsona batzuekin konektatzen gaitu, eta babes-loturak garatzea eta narratiba komunak sortzea ahalbidetzen du. Horregatik, **komunitateak emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzen lagun dezake**, eta berdintasunean oinarritutako harreman-inguruneak sortu, diskriminazioaren eta indarkeriaren adierazpenek tokirik izan gabe. Auzokide, lagun edo kuadrillen arteko harreman estuak **goiz ohartaraz dezake** indarkeria-egoera gertatzen ari dela.

Komunitate feministak, hurbiltasunetik eta sororitatetik, indarkeria jasaten ari diren emakumeak gorputzez babes ditzake, baita enpatia adierazi eta gertuko bide-laguntza ere eskaini. Halaber, jasandako indarkeria matxistari aurre egiten eta onera etortzen lagun dezake, eta egoera horietan bere erritmoak eta erabakiak errespetatu ditzake.


Tokiko komunitateak biktimen erreparazioa babes dezake. Horretarako, eragindako kaltea aitortu eta indarkeria matxista salatu dezake, eta publikoki biktimarekiko eta haren ingurukoekiko elkartasuna eta gaitzespena adierazi.

Udalok erantzukizun zuzena dugu, komunitateak sustatzeko non auzotarrak, taldeak eta koadrilak indarkeria matxistaren aurrean erne egongo diren, eta indarkeria matxista pairatzen dutenak hartu, integratu eta babestuko duen bizitza komunitarioa bultzatzeko. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako komunitate erreparatzaileak sustatzeko erantzukizuna dugu.

Horregatik, ALEGIAKO ko Udalak honako jarduera hauek garatzeko konpromisoa hartu du:

Jarduketa posibleak:

ALEGIAKO UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 9


- Hurbiltasun-sare lokalak indartzea: topaguneak, komunitate-jarduerak eta tokiko elkarten bizitasuna zaindu, pertsona guztiak eta, bereziki, emakume eta neskarik zaurgarrienak konektatzeko.
- Kanpotik iristen diren pertsonentzako harrera- eta integrazio-programak garatzea, tokiko komunitatearekin lotzea ahalbidetzeko, bereziki emakume eta nesken gan arreta jarritz. Gure herriaren kasuan, astean behin ezarri da (ostiraletan) etorkinei harrera egiteko zerbitzua.
- Hezkuntza-, osasun-, kultura- eta aisialdi-inguruneetan laguntza-sareak sustatzea, zerbitzu publikoak taldeekin, elkarteekin eta berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren esparruan elkarri laguntzeko ekimenekin konektatzeko. Alegiak, badu horretarako koordinazio sarea, bai osasuna bai hezkuntzako agenteekin.
- Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak garatzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista hutsaltzen edo legitimatzen duten diskurtsoak eta jarrerak desaktibatzeke, bereziki konplizitate matxisten inguruetan.
- Indarkeria matxistako kasuen aurrean herritarren mobilizazioa sustatzea, indarkeria gaitzesteko eta biktimizekiko elkartasuna adierazteke.
- Kanpaina eta kuadrillekin aliantzak garatzea sexuen arteko harreman osasungarri eta bidezko kodeak sortzeko, dibertsitate osoan, kode matxistak eta misoginoak hausteko.
- Tokiko emakumeen mugimenduei eta mugimendu feministari laguntzea eta haiekin koordinatzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak haien borrokan babesu emateke jarduerak garatzeko. Gure kasuan, Andragorarekin lanketa zuzena egiten dugu, datorren urterako esaterako , dinamizazio kontratuari baiezkua esan diogu eta horrelaxe islatuko dugu gure aurrekontuetan.

Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

Bozketu eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko hiru boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zortzi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 10

Aldeko zortzi bozka , aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko erabateko gehiengo osatzen dutela, **onartzen da erakundearen adierazpena.**

II.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2025


Euskara ZUGAN, NIGAN, GUGAN

Euskarak bide luzea egin du.
Luzeena, agian, Europa zaharrear.
Eta hala ere, bere bidea ez da amaitu: bizirik dirau.

Zein da sekretua?
Zein indar, zein ilusio izan da gure hizkuntza gaur arte ekarri duena?
Milaka urte, milaka pertsona, milaka amets eta ahalegin.
Norbanakoen indar isilak, belaunaldiz belaunaldi, gure hizkuntza zaharra gazte bihurtu du.

Debekuen aurrean, eutsi genuen.
Isilaraztearen aurrean, hitza berreskuratu genuen.
Euskara, gure zaharren hizkuntza izatetik, gazteen hizkuntza izatera pasa da.
Argi-izpi berri hauekin marraztuko dugu etorkizuna.
Euskararentzat aukera berriak zabalik daude.
Hazi eta berritu dadin lanean ari gara.

Bizi garen mundu nahasi eta aldakor honek, ordea, zaildu egiten du komunitatearen indarra eta zentzua.
Hiztun-komunitatea ez da berez mantentzen.
Zaindu, elikatu eta piztu egin behar da.

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 11

Horregatik, unea da.

Euskararen erabilerarako eta transmisiorako bide berriak jorratzeko unea. Aisialditik lan munduraino, eta norbanakotik erakundeetaraino, euskaraz hitz egiteko gune erosoak sortzeko unea.

Belaunaldi berrien artean euskararen transmisioa indartzeko unea.

Euskararen ezagutza zabaltzeko unea.

Erabilera sustatzen duten ingurune biziak zaindu eta berriak irabazteko unea.

Indarrak bildu eta urrats berriak eta ausartak egiteko unea.

Asko dugu egiteko, badugu zer hobetu.

Eta prest gaude!

Euskaraz dakiten eta oraindik ez dakitenekin batera.

Elkarrekin egiteko.

Eskerrik beroena urte luzez euskara bizi, euskaraz bizi eta biziarazi dutenei. Zuen lan isilak ekarri gaitu honaino, eta etorkizunak oraindik ere zuen beharra du.

Pozetik, atxikimendutik, ilusioz eta emozio positiboetatik abiatuta, euskarari distira emateko,

Eta euskara guztion hizkuntza bihurtzeko.

Euskara da!

Guztiontzat da.

Euskara ezagutzen ez dutenentzat ere, ate berri bat da.

Batzen gaituen hizkuntza bat.

Elkar ulertzeko gonbidapen bat.

Mundu berri bat irekitzen zaio euskarari.

Eta euskararekin, edonori.


Ate berriak zabaldu eta lur zoru berriak landuko ditugu, denon artean.

Hazi emankorragoak ditugu lur berria ereiteko.

Atzeak erakuts diezagula aurrea nola dantzatu.

Norberetik hasita egingo dugu bidea.

ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK

 <p>Alegiako Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 12

Guztion baitan baitago euskararen jautzia.
Zugan, nigan, gugan.

2025eko Euskararen egunean, gugandik abiatuta, ondorengo konpromiso hauek hartzen ditu ALEGIako Udalak:

- Udal politikan euskara erdigunean jartzea.
- Hizkuntza politikan atzera urratsik ez egitea.
- Euskarak behar duen jautzian udalari dagokiona egitea, eta horretarako bitartekoak jartzea. Duela hilabete Alegiako Udalak , AROA plan estrategikoa aurrera atera du, udal batzarra osatzen dugun bi taldeek, aho batez.

Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

Bozketa eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko hiru boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zortzi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.


Aldeko zortzi bozka , aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko erabateko gehiengoa osatzen dutela, **onartzen da erakundearen adierazpena.**

III.II.- MOZIOAK:

Ez daude.

III.III.- ERREGUAK:

Ez da egiten.

 Alegiako Udala Gipuzkoa	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	AKTA
		DATA:	2025 - 11- 26
	IZENA: 20251126ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 12 - 18
		ORRIALDEA:	13 (e)tik 13

III.IV.- GALDERAK:

Ez da egiten.

Eta besterik gabe, arratsaldeko zazpiak eta hogeita minutu direla, Alkateak amaitutzat ematen du bilera.

Ontzat Eman
Alkate-Lehendakariak

Idazkariak

